

LORENA GINALDO BIGARREN EUSKADIKO KROSS TXAPELKETAN


Lorena Ginaldo ermuarrak, bigarren postua lortu zuen Abadiñon izan zen Euskadiko Kross Txapelketako kade mailan. Aurretik Bizkaiko Txapelketa irabazia zuen atleta honek eta estatuko kross txapelketan parte hartzeko txartela ere lortu du.

San Pelaio ikastetxean ekin zion 15 urte dituen neskatxa honek, eta orain artean bere aita, Lauren, izan du entrenatzaile. Hemendik aurrera, oster, Manuel Garcia "Lolo" izango da bere pausuak hurbiletik jarraituko dituen gizona. Lolok sei urte daramatza dagoeneko Sallabenteko ikastetxeko ikasleak entrenatzen, eta kross-eko epaile izateko titulua ere lortua du.

Castilla-Leon-en eskutik, hori baita eskola mailak gaintitu ondorengo urteetan krossean jendea aritzeko bultzatzaile bakarra Ermuan, biek gogor jarduteko itzaropenaz ekingo diote lanari.

Lorenaz gain, beste ermuar batzuek ere parte hartu zuten Euskadiko Kross Txapelketan: Lorena beraren ama, Aure mancebo (10. senior mailan), Olatz Artola (11. seniorra), eta Sara Garcia gaztea, 13 urterekin kadetan 30. postuan geratuz.

ASIER IBAIBARRIAGA
SANTO VEGA



Lorena Lolo bere entrenatzaile berriarekin.



Zubiaurre, 12
Tfnoa. 17 01 59

Ekinza

ESKOLAKO MATERIALEA

KOPIAK KOLOREZ

FAX PUBLIKOA



Goienkale, z/g • Tlf. 17 20 08

Bar GREDOS

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*